



Arartekoaren 2018S-2672-17 Ebazpena, 2018ko irailaren 20koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki diogu ebazpen bat berrazter dezala; izan ere, ebazpen horren bidez, herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzak ukatu zizkion sail horrek eta jakinarazi zion ezin zituela prestazio horiek berriro eskatu 2019ko martxora arte.

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa bat aurkeztu du Arartekoan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu dizkiotelako.

Lanbidek 2016ko urriaren 22ko ebazpenaren bidez ukatu zizkion diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria, arrazoi hauek zirela tarteko:

- *“Actuaciones fraudulentas. No había presentado uno de los dos pasaportes que tenía.*
- *“No haber estado residiendo en la CAPV durante 5 años continuados en los 10 últimos años, ni tener residencia efectiva en la CAPV durante el año anterior a la solicitud a pesar de estar empadronada”.*
- *“Pérdida de la residencia efectiva (según pasaporte que presenta en la solicitud tenía una salida del país el 01/08/2015), luego presenta otro pasaporte del que no se tenía constancia con fecha de entrada el 20/03/2016) no tiene 5 años en los últimos 10. Según esto no puede solicitar hasta el 20/03/2019”.*

Kexagileak berraztertzeke errekurtsua jarri zuen ebazpen horren aurka, baina ezetsi egin dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erakunde horretako zuzendari nagusiaren 2017ko martxoaren 24ko ebazpenaren bidez.

Alegazioen artean, kexagileak azaldu du 2015eko abuztuaren 1ean Ekuatore Gineara joan zela pasaporte berritu eta zenbait dokumentu eskatu behar zituen-eta. Hainbat hilabete behar izan zituzten pasaporte berria igortzeko. 2015eko abuztuaren 26an salatu zuen atzerritar-txartela galdu zuela Malabon, Ekuatore Ginean. Arazo hori zela-eta, luzatu egin zen Ekuatore Ginean egindako egonaldia, Schengen bisa berria igortzeko eskatu behar izan zuelako Espainiara sartu ahal izateko horretarako prestatutako postuetatik.

2016ko martxora arte ez zioten eman Espainiara bidaiatzeko bisa.

Gertaera horiek egiaztatzeke, atzerritar-txartela galdu izana salatzean eman zioten ziurtagiria aurkeztu du diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren espedientean, baita Gineako Espainiaren Kotsulatu





Nagusian bisa eskatu izana eta Schengen bisa 2016ko martxoaren 15ean igorri izana egiaztatzen duten zenbait agiri ere.

Bestalde, informazio interesgarri hau eman du: Barne Arazoetako Ministerioak erregimen komunitarioko txartel iraunkorra igorri diola berriro, eta 2027ko uztailean arteko indarraldia duela horrek. Haren ama espainiarra da, eta interesduna EAEn bizi da orain dela 12 urtetik baino gehiagotik.

2. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen kexa; ondoren, aldez aurreko zenbait gogoeta helarazi zituen (horiek ondoren jasoko ditugu, eta beraz, ez ditugu errepikatuko) eta kontu hauen berri emateko eskatu zion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:
 - a. Azaliezaguzu zer araudi aplikatu duzun interesdunak benetako bizilekuari buruzko baldintza betetzen ez duela ondorioztatzeko.
 - b. Ea zer iritzi duzun helarazi dizkizugun gogoeten inguruan. Horien arabera, 2017ko martxora arte bidaiatu ezin izana justifikatzen duten arrazoi garrantzitsuak daude.
 - c. Kexagileari behar bezala erantzuteko egindako edo egin beharreko jardunen gaineko azalpena
3. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Lanbideko zuzendari nagusiak egindako txostenaren bidez erantzun digu. Han adierazitakoaren arabera, erakunde autonomo horrek uste du kexagileak Euskal Autonomia Erkidegoan benetan bizitzeko baldintza betetzeari utzi ziola; izan ere, 2015eko abuztuaren 1ean irten zen Espainiatik eta ez zen 2016ko martxoaren 20ra arte itzuli, eta, beraz, Lanbideko jo du herritar horrek ez duela betetzen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak moldatutako Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legearen (18/2008, abenduaren 23koa) 16.b) artikuluan ezarritako betekizuna.

Lanbideren esanetan, erabaki hori hartu du, hain zuzen ere, herritar horrek 90 egun baino gehiago egin dituelako EAetik kanpo, eta, beraz, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena) 51. eta 271.1. artikuluetan xedatutakoa aplikatu behar delako. Horrez gain, erabaki hori hartzeko arrazoitzat aipatu du urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren (Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta askatasunei, eta horien gizarteratzeari buruzkoa) 31.1. artikulua bereizi egiten dituela aldi baterako bizilekua eta egonaldia, eta lehenengoa 90 eguneko baino gehiagoko egonaldia egitean hasten dela.

Gogoetak

1. Espediente honen helburua da aztertzea zuzenbidearekin bat ote datorren eskatutako prestazioak ukatu izana etxebizitza eraginkorraren betekizuna ez betetzeagatik.





Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen (18/2008, abenduaren 23koa) 16.b) artikulua —azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan— ezartzen du, prestazioa jaso ahal izateko, besteak beste betekizun hauek bete behar dituela interesdunak: eskaera aurkezten den unean, bai eta aurreko hiru urteetan ere, erroldatuta egon eta benetan bizi izana eskaera egin den udalerrian, edo, bestela, esandako denboraz baldintza horiek bete ezean, eskaera egin aurreko hamar urteetan, gutxienez hurrenez hurrengo bost urtez Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon eta benetan bizi izana. **Araudiak ez du ezartzen nola egiaztatu behar den EAEn benetan bizitzearen betekizuna betetzen dela.**

“16.b) artikulua Eskabidea aurkezteko unean, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea, eta eskabidea egin baino urtebete lehenagotik, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon izana eta benetan bertan bizi izana.

Aurretiazko gutxieneko epea betetzen bada, baina hiru urtean erroldatuta egotera iristen ez bada, gutxienez bost urteko jarduera laboral ordaindua egiaztatu beharko da, bizitza laboralaren agiri bidez, salbu eta pentsio publiko bat jasotzen duten edo etxean tratu txarren biktima izan diren pertsonen kasuan.

Gutxieneko epe hori bete ezean, eskatzaileak aurreko hamar urteen barruan bost urtez jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana izan beharko du“.

Lanbideren iritziz, kexagileak EAEn benetan bizi izanaren baldintza betetzeari utzi zion, 2015eko abuztuaren 1ean irten zelako Espainiatik eta ez zelako 2016ko martxoaren 20ra arte itzuli.

Horri lotuta, erakunde horren ustez, aplikatzekoak dira urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena) 51. eta 271.1. artikulua; artikulua horiek ezartzen dute zein den, gehienez ere, kanpoan egin daitekeen aldia Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak edo gutxienekoengatik osagarriak jasotzeko eskubideari euste aldera (horiek kobratu ahal izateko ezinbestekoa da Espainian bizitzea) eta, zehazki, langabezia-prestazioa jasotzen jarraitzeko.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 51.2. artikulua arabera, *“... se entenderá que el beneficiario tiene su residencia habitual en España aun cuando haya tenido estancias en el extranjero, siempre que estas no superen los noventa días naturales a lo largo de cada año natural, o cuando la ausencia del territorio español esté motivada por causas de enfermedad debidamente justificadas.*

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, a efectos de las prestaciones y subsidios por desempleo, será de aplicación lo que determine su normativa específica“.





271.1. artikulua hauxe dio: *“El derecho a la percepción de la prestación por desempleo se suspenderá por la entidad gestora en los siguientes casos”:*

(...)

g) *En los supuestos de estancia en el extranjero por un período, continuado o no, de hasta noventa días naturales como máximo durante cada año natural, siempre que la salida al extranjero esté previamente comunicada y autorizada por la entidad gestora”.*

Gainera, Lanbidek arrazoitu du urtarrilaren 11ko 4/200 Lege Organikoan (Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa) xedatutakoari jarraituz, 90 egun baino gehiago egin behar direla Espainiatik kanpo jotzeko ez dela bete bizilekuaren baldintza. Lege horren 30. eta 31. artikuluekin bat etorritik, 90 eguneko epea gaindituz gero, nonbait egonaldia egitetik han bizitzera igarotzen da.

2. Arartekoa ez dator bat arrazoibide horiekin. Erakunde honen iritziz, gizarte-bazterketako egoerei aurre egitea helburu duten prestazio ekonomikoak ukatzeko, araudiaren babes nahikoa izan behar du, eta ezin dira automatikoki aplikatu beste kasu batzuetan beste prestazio batzuetarako aurreikusitako xedapenak. Gaur egun aplikatu beharreko araudiak, alegia, 18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, eta hura aldatu zuen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak, ez du arautzen zertan datzan EAEn benetan bizi izana egiaztatzeko betekizuna ez betetzea, eta ez du xedatzen hura betetzeari uzten zaionik 90 egun Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo emateagatik. Halaber, ez du jasotzen salbuespenezko kasurik edo arrazoi justifikaturik.

Horrek aukera eman lezake tasatutako salbuespenen bat ezartzeko, besteak beste egonaldiaren iraupena eragin duen arrazoa ez dagoenean interesdunaren esku.

Espediente honetan, kexagileak Ekuatore Gineara joan behar izan zuen pasaporte berritzera, iraungi egin baitzitzaion. Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria eskatzeko, ezinbestekoa da **pasaportea indarrean** izatea. Herrialde horretan zegoela, atzerritar-txartela galdu zitzaion, eta, hortaz, izapide ugari egin behar izan zituen Ekuatore Gineatik atera, Espainiara bidaiatu eta bere bizilekuan legalki sartu ahal izateko. Pertsona hori duela 12 urtetik baino gehiagotik bizi da EAEn. Ama espainiarra da, eta, hori dela-eta, Europar Batasuneko herritar baten senide izateagatik atzerritarren txartela zuen. Finean, azken 12 urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan da, eta justifikatutako arrazoi batek eragin zuen Ginean 8 hilabete igaro behar izatea. Beraz, horiek horrela, ez da arrazoizkoa ondorioztatzea 90 egunez EAetik kanpo egoteagatik bizilekua aldatu nahi zuela, eta, horregatik, 2019ko martxora arte itxaron behar duela egiaztatzeko betetzen duela eskaera egin aurreko hiru urteetan EAEn errolatuta egotearen eta benetan han bizitzearen betekizuna.

3. Lanbide, barne-jarraibideen bitartez, benetan bizi izanaren baldintza ez dela bete jotzeko irizpidetzat hartzen ari 90 egun baino gehiago eman izana EAetik kanpo.





Aldi baterako irizpide hori txertatzen ari da bai aipatutako beste araudi batzuetan, bai orain dela gutxiko Osasun Sistema Nazionalerako Sarbide Unibertsalari buruzko Errege Lege-Dekretuan (7/2018, uztailaren 27koa).

Nolanahi ere, Arartekoari iruditzen zaio hori ez dela aplikatzekoa kasu honetan. Ebazpen askotan, bai eta *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen*, 2017 izeneko agirian ere, adierazi da egungo araubidean hutsuneren bat dagoela, eta horrek segurtasun juridikorik eza eragiten duela. Hala ere, **“benetako bizilekua” kontzeptu juridiko zehaztugabeari eduki argi bat ematen utziko dion lege egokirik ez dago oraindik**; eta horrek dakar Lanbidek balioespen tarte handia izatea. Arartekoaren aburuz, balioespen tarte hori kontrola daiteke herri-administrazioen eskumeneko erabakiak kontrolatzeko normalean erabiltzen diren tekniken arabera, zuzenbideko printzipio orokorren teknikaren bidez, esate baterako.

4. Kexagileak egiaztatu du eskaera aurkeztu aurretiko 3 urteetan eroldan izena emanda zegoela eta bertan benetan bizi zela (eta baita aurreko hamar urteetan bost urtez jarraian ere). Ez du oinarri objektiborik iriztea ustekabean Ekuatore Ginean 8 hilabetez egon behar izanak Bilbon zuen benetako bizilekua galtzea eragin dionik. Udallerri horretan ditu familia eta etxea. Gainera, Europar Batasuneko herritar baten senide izategatiko bizileku-baimenaren titular da, eta galdu zuen atzerritarren txartelaren kopia bat lortu du. Arrazoi hori dela-eta, benetako bizilekuaren betekizuna betetzen dela baloratzeko, ezin dira alde batera utzi Ekuatore Gineako egonaldia luzatzea justifikatzen eta azaltzen duten arrazoiak eta Espainiara lehenago bidaiatu ezin izanarenak.

Benetako bizilekuaren betekizuna egiaztatzeak eragin handiko kontzeptu bat du zer-nolako lurralde-mugikortasuna duen kontuan hartuta eta, beste aldi batzuetan esan den moduan, hainbat sektoretan eztabaida juridiko biziak sortzen ditu, pertsona batek bere bizilekua leku batean edo bestean finkatzeko duen nahia objektibatzen zailtasunagatik. 90 egunez “per se” kanpoan egoteak benetako bizilekuaren betekizuna ez betetzea dakarrela iriztea ez da zentzuzkoa, honako hau kontuan hartu gabe: ez zela borondatezkoa izan, baizik eta Schengen espazioan sartu ahal izateko finkatutako lege-aurreikuspena betetzeko beharraren ondorioa izan zela.

Lanbidek bere erabakia hartzeko orduan ez ditu aintzat hartu beste faktore batzuen garrantzia; beraz, benetako bizilekuaren betekizuna egiaztatzeko erari buruzko araudi argi bat ez dagoenez, aipatu behar da inguruabar horietan ez duela bete, eta Arartekoaren aburuz, ez dela arrazoi sendoa eta ez duela betetzen Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikuluan ezarritakoa aurreikuspena, botere publikoen arbitrariotasun-debekuaren printzipioa ezartzen duena.

5. Azkenik, Lanbidek 90 eguneko epearen aplikazioa justifikatzeko baliatutako arrazoiaren artean, honako hau dago: atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak egonaldia eta bizilekua bereizten ditu epe hori igaro





izanagatik. Nolanahi ere, ondorio horietarako, aurreko araudia ez zaio aplikatuko; izan ere, kexagilea espainiar baten semea da eta, beraz, ez da aplikagarria izango otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretua, Europako Batasuneko estatu kideetako eta Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Ituna sinatu duten beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartzeari, askatasunez joan-etorrian ibiltzeari eta bizitzeari buruzkoa. Haren laugarren azken xedapenaren arabera, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa soilik aginduko da errege dekretu horretan ezarritako betekizunak daudela egiaztatzen ez den kasuetan, edo osagarri modura, aldekoagoak izan daitezkeen neurrian eta hauetan xedatutakoaren aurka jotzen ez badute: Europako Erkidegoak eratzeko Tratatuak eta haietatik ondorioztatutako zuzenbidea.

Otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuaren 11.3 artikulua aplikatuz: *“Las interrupciones de residencia no superiores a dos años consecutivos, no afectarán a la vigencia de la tarjeta de residencia permanente”*.

Kasu honetan, Espainiatik kanpo 8 hilabete igaro izanak ez du eraginik izan bizileku-baimenean, aurrez aipatu den moduan, 2027ra arteko indarraldia baitu horrek.

Azken batean, Arartekoak uste du abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.b) artikuluan ezarrita dagoen *“benetako bizitokia egiaztatzeko baldintza ez betetzea”* testuak esan nahi duenari buruzko araudi argi baten edo garapen normatibo egoki baten gabezia ezin dela bete automatikoki Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko araudia erabiliz. Kasu honetan 90 egunez kanpoan izateko beharra azaltzen duten faktore jakin batzuk egoteari esker, Arartekoak ondoriozta dezake ez dela betekizun hori urratu.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan agindutakoarekin bat eginez, honako iradokizun hau egin dugu:

IRADOKIZUNA

Arartekoak Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari ebazpena berrazter dezala iradoki dio; ebazpen horren bidez, kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera ukatu zaio eta 2019ko martxora arte ezin duela beste eskaerarik egin jakinarazi.

